

Nazioarteko Jardunaldiak.

“Nazioak eta Estatuak XXI Mendean: Demokrazia eta Erabakitzeko Eskubidea”

ZUBIAGA: ERABAKIA ETA ESKUBIDEA, DEMOKRAZIAREN ETENGABEKO BERRIKUNTZA.

El surgimiento de un nuevo estado, un nuevo actor internacional depende en la mayor parte de los casos de entrar en un escenario de ilegalidad en relación con un marco jurídico preexistente. Un acto de desobediencia civil soberanista.

El cambio de paradigma es importante. Hasta ahora, en EH hemos intentado buscar encajes, amparos o perchas jurídicas constitucionales a nuestras demandas políticas. Eso es un recorrido agotado... Cataluña nos lo ha mostrado.

Las propuestas que hoy en EH busquen esos encajes son caminos agotados ya por Cataluña. Trabajo que Cataluña ha hecho por nosotros. De modo que, nosotros no tenemos necesidad de volver a repetirlo. Agradecimiento a Cataluña.

Esa búsqueda de amparo en el marco estatal o en el marco internacional (sobre todo, en éste) se encuentra con dos límites claros y lógicos:

1. Un estado jamás va a conceder nada que le afecte negativamente;
2. La Unión Europea jamás va a amparar a alguien que no sea estado, cuando su demanda moleste a un estado preexistente.

Estas dos premisas muestran la relativa relevancia de la argumentación que se produce para buscar marcos, apoyos o perchas jurídicas, tanto a nivel estatal como en la legislación europea.

Como mucho, serán argumentos jurídicos a mayor abundamiento (obiter dicta) que podrán ser utilizados como instrumentos, pero ahí no estará la solución en ningún caso a la demanda del derecho a decidir o de la secesión.

Erabakitzeko eskubideaz ari geranean, bi galdera:

Demokratikoa al da erabakitzeko eskubidea? Erantzun tautologikoa. Demokratikoa da modu demokratikoan garatzen bada. Baldintzak zehaztu behar dira. Lekuan lekuko baldintzak.

Legala al da? Galdera honi erantzutea korapilotsua da. Autodeterminazio eskubidearen adiera garaikidea bezela, askotan lotuta dagoelako iada existitzen den egitura instituzional bati. Iada indarrean dauden estatu egitura batzuei lotuta dago.

Ez estatu soberano batzuei, bai ordea egitura instituzional batzuei. Egitura existente batean (Quebec, Eskozia, Kataluña, EH,...) sortzen da erabaki eskubidea. Badago egitura instituzional bat, legeak sortzen dituen egiturak. Ez dira egiturarik gabeko koloniak. Edo inongo antolaketa politikorik gabeko lurralde bat.

Erabakitzeko eskubidearen legezkotasuna planteatzen denean, askotan planteatu behar da. Legeen arteko talka bat bezela da. Talka hori oinarritzko zuzenbidearen printzipioen arabera argitu behar dala esan nahi du horrek.

Legeak bi gauza behar ditu, talkan daudena:

- Jerarkia normatiboaren printzipioa;
- Lege batek, legearen aplikaziokoa den eremuan legitimitasun nahikoa izatea,

Azken honek irabazi beharko luke. Legitimitasun demokratikoak beti egon beharko luke jerarkia normatiboaren gainetik. Juristen arteko eztabaida bada ere, argi dago jerarkia normatiboa ezin daitekeela jarri printzipio demokratikoaren gainetik.

Eta erabakitzeko eskubidearen legezkotasunari buruzko eztabaida azken honetan bilduko genuke.

Nundik abiatzen da eztabaida hau?

Krisi egoera batetik. Ez krisi ekonomikoa bakarrik, krisi azkoz ere sakonagoa. Modernizazioaren azken uhinak mundu mailan eragingandako krisia. Apurtu ditu mediazio/intermediazio egitura guztiak. Botere politikoari dagokionean, botere ekonomikoaari dagokionean, botere hoi en arteko lotura eta harremanei buruzkoan ere. Autoreak: David Harvey/Saskia Sassen.

Lurraldea/boterea/eskubideak, nola antolatu gaur egungo munduan. Krisi hori oso sakona da. Soberania edo burujabetzaren muinean jotzen du. Krisiari erantzun asko.

Bat, erreakzio erresistentzialista edo 'neoautoritarioa' deitu daitekeena (eskuineko populismoen bidez). Ardatz bezela, askotan Estatu-nazioen defentsa hartzen dutena. Globalizazioak apurtu egiten ditu mediazio egitura klasikoak. Eutsi diezaiozun nazio-estatuari. Berdin UKIPen edo Front Nationalean.

Beste erantzuna, erantzun 'sistemikoa' da. Indibidualizazioa, eros kontsumista, pribatizazioa.

Beste erantzun mota bat, 'emantzipatzailea'. Emantzipatzailea oso zentzu zabalean. Sloterdijk-ek esan bezela, timos-aren balioan, heroizadetan, sakrifizioan, komunitatearen harrotasuna indibiduala eta kolektiboa adieraztean, laburbiltzen den jarrera morala. Politikoa baino gehiago, morala.

Horregatik, 'emantzipazio' konzeptu horrek gaintitu egiten du marxismo klasikoak emantzipaziori eman dizkion edukiak. Egia da horiek ere hor daudela sartuta, baina planteamendu zibilizatorio bezela askoz ere seguruenik erantzun sakonagoak.

Guk hortan, erantzun emanzipatzaile hortan, posizio egokia daukagu. Balio hoiek garatu ditugulako borroka baten ondorioz, borroka historiko baten ondorioz. Mobilizazio historiko horrek gailendu egin du timosaren balioa eros konsumistaren aurrean. Kolektiboa, harrotasuna, sakrifizioaren balioak... Indibidualismoa albo batera utzi duten balioak.

Hori zenbait lekutan gehiago garatu da, beste leku batzuetan gutxiago. Azkenean Kataluñan edo Eskozian edo EHn garatu baldin bada hori izan da nazio bat ari izan dalako eraikitzen azkeneko 200 urteetan eta eraiki gabe edo erabat lortu gabe bere tresna politiko estatalak.

Gabezia hori ere balore bezela hartu beharko genuke neurri batetan. Horrek ez du esan nahi gabezia hortan mantendu beharko genukeenik gure herria balore hoiek mantentzeko... Baina, parte positibo bat ere izan du egoerak honek.

Zer bilakaera kontzeptual egon da estaturik gabeko nazio hoién baitan?

1. Nola pasatu garen naziogintzan, 'nation building' kontzeptuetatik 'herrigintza' kontzeptuetara, 'demos building' kontzeptuetara, eta nola komunitatea bera bersortzeko garapen honetan nola gailendu diren XIX garren eta XXgarren mendean nagusi ziren balio nazionalista klasikoak?
2. Eta nola 'demos building' kontzeptua edo herrigintza kontzeptua gurean ere oso zaharra dana, rekorrido asko ta izugarri sendoa duena nola garatu dan?
3. Eta nola bilakatzen dan herrigintza, estatugintzarako tresna?

Ez da nazio batek eskubidea duela estatua izateko, baizik eta herri batek eskubidea duela estatu izateko. Garabide ideologiko edo diskurtsibo hori Kataluñan aspaldidanik hasita dute eta gurean ere kokatu behar dugu. Gurean ere horrela izanda baino naziogintza eta herrigintza batera etorrita.

Herrigintza hori berdinduko genuke demokratizazio kontzeptuarekin. Kontzeptu hontan tentsioan dauden ideiak : demos subjektiboa eta demos objektiboa.

Azken finean, komunitate baten bersortze prozesua komunitate gisa, sentimendu eta identitate kolektibo gisa, herri gisa, nazio gisa baiño gehiago. Eta, gero, 'demos objektiboa', demos horrek izan duen instituzionalizazio prozesua eta instituzio hoiek nola lagundu duten ere bersortzen herri hori komunitate politiko hori.

Horrek zer esan nahi du? Ba prozesu hortan, dinamika hortan, azken 20, 25, 30 urteetan aritu garela EHn eta aritu direla Kataluñan naziogintzan, herrigintzan edo estatugintzan. Eta prozesu bat dala, ez dala egun batean badaukazu estatua eta hurrengo egunean ez daukazu edo alderantziz. Etengabe egiten ari zaren prozesu bat. Etengabe herria sortzen edo desegiten, nazioa sortzen edo desegiten, etengabe instituzioak indartzen edo ahultzen. Hor erdigunean kokatzen da erabakitzeko eskubidea.

Ez gara sartuko Tillyren azalpenean, nola definitzen dan demokratizazioa, horrek zer suposatzen duen, nola sakontzen duen kontsulta babestuaren kontzeptuan, herritartasun gero eta zabalagoan, gero eta berdinagoa, kontrol politiko gehiago agintariengan, arbitrariedade gutxiago agintarien aldetik,...

Hor kokatuko litzake demokratizazioaren urrats bezela, azken finean, erabakitzeko eskubidea. Edo sinonimo bezela, burujabetzaren eta demokratizazioaren sinonimo bezela.

Hala ere, honek baditu bi aldaera.

Bat, kategoria politiko gisa, zein punturaino erabakitzeko eskubidea berria den. Neurri batean bada berria, betikoa izanik ere. Betikoa da, burujabetzaz, demokraziaz ari gara. Baina, badauzka eduki berritzaile batzuk.

Berrikuntza gisa, esango genuke izango litzakeela autodeterminazio eskubide klasikoaren egokitzapen bat, eraberritze bat. Erabakitze eskubideak erabiltzen du kontzeptu bat pixka bat lausoagoa. Eta nahastu egiten ditu askotan, bai plebiszitariora, bai nazionala eta bai kausa justa edo remediala. Azken finean, gaur egun oso modan dauden adierazle hutsak edo 'significante vacío' erabiltzen dituzte erabakitzeko eskubidea defenditzen dutenak. Zer da? Hor kokatzen dira ikuspegi demokratiko sakona-radikala –plebiszitariora-, hor kokatzen da ere nazio bat badagoela hor, eta hor kokatzen da injustizia batzuk konpondu behar direla eta eskubide batzuk konpondu behar direla, eta hoiek konpontzeko biderik egokiena agian erabakitzeko eskubide hori da.

Baina, badago nolabaiteko berrikuntza doktrinala, erabakitzeko eskubidea autodeterminazioarekin alderatuta. Printzipio demokratikoa batez ere azpimarratzen duelako. Batez ere, diot. Ze esan bezela, nahastuta badaude beste adierak.

Beste eduki bat da negoziazioarena. Azken finean, nun planteatu da modu egituratu eta garatuan, nun? Ba, sistema demokratikoetan. Gutxi asko, Kanada, edo Britania Handia, edo España esango genuke sistema demokratikoak direla.

Horrek zer esan nahi du? Ba, eragileen arteko harremanak ere modu zibilizatuan, erabakiaren eta negoziazioaren bitartez, bideratu eta erabaki daitezkeela. Horrek ez du esan nahi bideratuko direnik. Baina, bideratu beharko lirateke. Erabakitzeko eskubideak ere badauka lehenengo urrats bezela, negoziatorako esku luzatze bat, proposamen bat. Eta hori Kataluña oso ondo erakutsi digu nola joan den agortzen bata bestearen atzetik negoziatorako pauso eta urrats guztiak.

Eta azkenean, erabakitzeko eskubideak badauka printzipio demokratikoarekin lotuta beste elementu bat inportantea dana eta da, aldebakartasuna. Negoziazioa hor dago, saiakerak hor daude, baina azkenean printzipio demokratikoaren arabera, gorria dena berde bilakatu behar da. Edo, nahi baldin bada, semaforoak batzutan gaintitu egin behar dira. Eta modu aldebakarrekoetik eman beharko lirateke pausoak.

Diskurtso berritzaile bezela, Erabakitzeko Eskubideak badu oinarri bat komunitatearekin lotuta dagoena. Demos ireki bat planteatzen duela beti. Kasuistika aztertzea besterik ez dago, nola definitu dan demosa Eskozian eta Kataluñan. Eta EHTarra zein den eta zein ez den nola definitzen ari da oraintsu arte eta orain burutu diren bizpahiru kontsultetan (Etxarri, Arrankudiaga) edo hemendik aurrera egin daitezkeenetan. Harvey-k esaten duen bezela, komunitatea ez da elementu objetibo bat, elkartze prozesu bat baizik. Ez da objetua, elkartzen prozesua da komunitatea.

Horrekin txertatuta, horrek eduki sozialak dakartzala. Prosperitatea, printzipio demokratikoa, ekitatea, justizi soziala direla EEn azpian dauden diskurtsoak.

Hortaz, badago diskurtso berritzaile bat eta badago doktrina berritzailea.

Praxi politiko gisa, EEak dauka gunetako bat da mugitzen dala politikotasuna eta politikaren artean (Lo político y la política). Soberano izan dira Eskozian egun batez eta ia ez dira? Edo egun hortan izan zirelako orain ere badira? Azken finean, demokrazia eta soberania ulertu daiteke momentu bezela, une bezela, gertakizun bezela, akontezimendu bat bezela, herriaren agerpenaren unea, (azaroak 9 Kataluñan)... Eta ulertu daiteke ere politika bezela, kudeaketa, instituzionalizazioa,... Biak batera da Politika. Zentzu zabalenean, bai momentua, akontezimendua, eta baita ere kudeaketa. Momentu sinbiotikoan dago Kataluña: erakundeak, alderdi politikoak, eragile sozialak, herritarrak...

Hiru premisa, azkeneko pausoa sartu aurretik.

1. Premisa: *“mobilizazioaren eta instituzionalizazioaren elkarreagina da demokratizazioaren motorra”* (Charles Tilly). Elkarreagin horrek etengabea izan behar du.
2. Premisa: *“Demokratizazioaren neurria, mobilizazioaren arabera da, baina mobilizazio oro ez da demokratizatzailea”* (Marchart). Espainiako transizioan, mobilizazioaren neurria 5koa izan bazen, 5eko demokratizazioa sortuko zuen. Kataluñako kasuan, estatu independentearen langa 9an badago, 9ko mobilizazioa sortu behar da.
3. Premisa: *“Kultura politiko liberal-anglosaxoian (Estatu ahularen bidea), elkarreagin hori errazagoa da kultura jakobinoetan baino (Estatu sendoaren bidea)”*. (J Azurmendi/Lord Acton). Honek beste ardatz teorikoa irekitzen du, bere azken liburuan Joxe Azurmendik proposatzen duena. Gaindituz eztabaida klasikoa, nazionalismo zibiko eta etnikoaren eztabaida baztertuz. Azurmendik ondo erakusten du, nazionalismo zibikotzat jo diran hoi eskutik egin direla gehiegikeri haundienak. Dikotomi egokia da, kultura politiko anglosaxoia eta kultura politiko jakobino-demokratikoaren artekoa. Lehenengoan dira: Alemania, eta este herri anglosaxoiak (Kanada eta Birtania Haundia). Tillyren beste klasifikazioaren parekoa da, ‘estatu ahula’ (gizarte zibil sendoarekin) eta ‘estatu sendoa’ (gizarte zibila barneratzen duena).

Azken klasifikazio horrek hobeto esplikatzen du zein dan gurean daukagun egoera. Egoera normal zibilizatu batean, hortaz liberal anglosaxoi horretan, mobilizazioa eta erakundetzearen arteko lotura errezagoa da, dinamikoagoa da. Eskoziak planteatzen du demanda bat, denboran zehar, kalean bai, baino ez gehiegi, demanda izan da alderdi politikoen bidez bideratu dana, aktibatu dira sektore sozialak, baina lidergo politiko-partidarioa izan da. Eta beste aldetik erantzun dana izan da bale nahi baduzue egin ezazue. Instituzionalizatu egin da oso modu errazean EE.

Quebec-eko kasuan, erdibidean. Kanadako kultura politiko bada, Quebec beste kultura politikotik datorrelako, agian konplexuagoa da kultura politiko. Gogoratu behar dugu, Quebec-ek egin dituela gauzak, kontsultak egiten ditu, eta gero datorrela legeztatzea

Kanadako Auzitegi Gorenak. Bretaña Haundiaren kasuan, alderantziz. Beste elementu batzuek ere badaude hor, konstituzio idatziak eta ez idatziak... Hau izango litzateke –mobilizaziotik erakundetzera- ibilbide liberal-anglosajoa.

Beste kultura politikoan gaudela, mobilizazioak muga batzuk ditu eta muga hoiak erakutsi dizkigu Kataluñako prozesuak, bereziki A-9ko egunak. Egun hau mobilizazioaren eskemaren amaiera eguna da eta aldi berean erabakiaren lehenengo eguna. Agortu egiten da mobilizazioa erakundetzearen esperantza eta erabakiaren esparruan kokatzen gara, desobedientzia zibil soberanistaren jauzia emanez.

9an Kataluñako herriak, bertako zenbait erakundeek desobeditu egin zuten estatuaren agindua. Desobedientzia ez da gauza objetiboa, baizik eta besteak nola ulertzen duen zure ekintza, ze estatuak esan zezakeen ez det ezer egingo. Noiz bilakatu da desobedientzia zibileko ekintza 9koa? Estatuak erabakitzen duenean kerellatzea Masen kontra. Une horretan, hori desobedientzia zibila bilakatu da. Ordurarte, egin dute gauza bat, ez dago oso argi ilegala edo alegala dan; baina desobedientzia zibila –‘como acto ilegal’- noiz bilakatzen da? Kerella hori planteatzen danean. Estatuak sortzen du desobedientzia zibila 9an, ‘de facto’.

Desobedientzia zibil soberanista honek suposatzen du desobedientzia zibil klasikoaren bermoldatze bat, ze hor obediencia alternatibo bat dago. Klasikoan, obeditzen diozu zure justizia sentimenduari. Kasu hontan, obediencia alternatiboak planteatzen dira. Kataluñako erakundeek obeditzen diote beraien herriaren mandatuari. Kataluñako herriak obeditzen ditu bere erakundeak. Eta biek ala biek desobeditzen dituzte estatuko erakundeek. Beraz, desobediencia eta obediencia alternatiboa desobediencia soberanista...

Justifikazioari dagokionean, kasu honetan izan liteke juridikoa. Batzutan, konstituzioetako teorikoek esaten dute, konstituzioa defenditzeko erarik egokiena ilegala izatea da. ‘No hay un acto más constitucional que un acto ilegal’. Batzutan. Masen defensasak: ‘nik ekizta ilegal honekin defendatu dut zuen konstituzioa, zuen konstituzioaren atariko titulua, zuen konstituzioaren printzipio demokratikoaren aldarrikapena, zuen konstituzioaren alderik demokratikoenak, eta ez det defendatu zuen konstituzioan dauden transizioan ezarritako peaje autoritarioak...’. Quebec (federalismoaren printzipioak Kanadako konstituzioan daude, EE hortxe dago, bertako Auzitegiak onartu duen bezela), Eskozia (erreinu historikoa,...).

Argumentazio politikoagoak interesgarriagoak dira. Juridikoak balia daitezke Konstituzioa txertatzeko EE, kultura liberal-anglosaxoian egon ezker, mobilizazioa erakundetzeko aukera izan ezker. Baina, hori ez da nahikoa izan España aldatzeko. Desobeditzea eta juridikoki erakustea izan daiteke. Azaroak 9ko desobediencia juridikoki defendatzen bada, horrek ematen dizu España konstituzioaren erreforman sartzeko eta Kataluña bilakatzeko Españaren erreformadore, demokratizatzaile. Nik desobeditu dut, txerta dezazun EE España konstituzioan. Eszenario hori hor dago. España mugimendu bat egin nahi izan ezker, agian interesatuko zaio eszenario hortan jokatzeko.

Bestea litzateke, justifikazio politikoa. Baldintza batzuetan (Habermas). Nola egon daiteke justifikatua desobediencia (soberanista):

1.gehiengoaren arauaren porrota dagoenean,

2.egiturazko gutxiengoa baldin badago,

3. Elementu atzeraegingarriak planteatzen direnean,

4. deliberazioaren gabezia ikusten denean.

Hoiek guztiak porrot egin eta gero agertzen da ERABAKIAREN justifikazio politikoa.

Eta BOTERE KONSTITUZIOGILEAREN agerraldia.

Eta lehen esan badugu, konstituzio bat defendatzeko akto ilegalak egin behar direla, onartu beharko da konstituzio BERRI bat egiteko ia derrigorrezkoa dala aurreko egoeran ilegaltzat joko den jarrera bat burutzea. Eta konstituzio berri horrek legala bilakatzen duela bere sorrera. Eta horrela, Kataluñak jauzi hori egiten duenean, proklamazioaren momentuan, legeztatuko ditu ordurarte emandako pauso guztiak. Hori gertatu da konstituzio guztiak sortu diren momentuan.